



Nafarroa Bai

AURKIBIDEA

0. Abagunea.....	2
1. Zein da Eusko Alkartasunak NaBai sendotzeko..... egin dezakeen ekarpenik onena?	4
2. EA-ren proposamenaren oinarriak NaBai indartzeko.....	6
3. Egun dauden politika eta antolaketa oinarriak eguneratu.....	9
3.1. Politika eta Instituzio Oinarriak.....	10
3.1.1. Eremu instituzionala.....	10
3.1.2. Esparru politikoa.....	14
3.2. Nafarroa Bai. Definizioa eta antolaketa egitura.....	16
3.2.1. Ordezkaritza eta Erabakimen Organoak.....	16
3.2.2. Parte-hartze organoak.....	18
4. Nafarroa Baiko kide guztien arteko akordio berria egitea.....	20
5. Antolakuntza Egituraren eskema.....	I Eranskina



Nafarroa Bai

Abagunea

Nafarroak une politiko gorabeheratsuak bizi ditu. Foru hauteskundeetara eta Espainiako estatuko hauteskunde orokorretara elkarrekin aurkezteko UPNk eta PPK zuten hitzarmen historikoa duela urtebete hautsi zen, eta 1986ko Euskararen Legearen aldaketa txikiaren bozketan abstenitzeagatik CDN Nafarroako Gobernutik egotzi berri dute. Bi gertaera horiek Nafarroako Alderdi Sozialista UPNren bazkide bakar bilakatu du; bazkide beharrezko, beraz.

PSNren eta UPNren elkarrenganako menpekotasun ezohikoaren ondorioz, zentzugabekeriak eta kontraesanak betetako nahaspila instituzionala sortzen ari da. Eta nahaspila are kezagarriagoa da krisi ekonomikoaren testuinguru honetan, Foru Gobernuak ez baitie delako krisiaren ondorio sozialei efikaziaz eta eraginkortasunez aurre egiten; eskuineko gobernua izaki, justizia sozialarekiko nahi oro helburu politikoetatik urrun dago.

UPNk eta PSNk autoezarritako ekintza batasun hori inkoherentzian itotzen ari da bi alderdiok. Esaterako: berriki, parlamentuaren osoko bilkura batean, eta Rodriguez Zapateroren Gobernuaren erreforma fiskala gogor kritikatu eta deskalifikatu ondoren, UPNk PSNrekin batera bozkatu zuen azkenean, Nafarroako Parlamentuak PSOEn politikari gaitzespen formala ez egiteko. Era berean, PSN, azken urte honetan, krisiaren aurka UPNk proposatu dituen politika guztien alde agertu da, nahiz eta, batzuetan, zuzenean jo duen PSOEn gobernua Madrildik bultzatutako neurrien filosofia eta esanahiaren aurka.

Hori bai, Foru Hobetzearen erreforma guztiak herritarren borondate politikoaren gordailuzaina den Nafarroako Parlamentuan, eta ez erakunde honetatik aparteko foroetan, jorra daitezten Nafarroa Baik egindako proposamena blokatzeko orduan —CDNren eta IU/EBren babesa zeukan—, bat egin dute bi alderdiok.

ESKUINAREN ZATIKETA: ONDORIO KALKULAEZINAK DITUEN BERRIKUNTZA

Nafarroako zentro-eskuina ardatzaren zatiketa, hasieran behintzat, berri ona da Erkidego honetan sakoneko aldaketa politiko nahi dugunontzat. Eta kalkulaezinezko ondorioak eduki ditzake epe ertainean.

Nafarroako Alderdi Popularraren agerpenak, eta PSNrekin dituen loturak sendotzeko UPNk egin duen apustu estrategikoak, Miguel Sanzen eta Yolanda Barcinaren alderdiaren eskusibitate eskaera barne, **gune sozial eta ideologiko berean kokatzen dituzte hiru alderdi horiek.** Lehia honi CDN gehitu zaio; zentroari eutsi nahi dio, nahiz eta eremu hori, UPNren gobernu urteen ondorioz, abandonatua eta eskastua dagoen.

Egoera horren ondorioak sumatzen hasiak dira. UPN eta PPren arteko lehia politiko eta borroka dialektikoa gero eta ageriagoa da komunikabideetan. Bitartean, PSN UPNren presidente eta etorkizuneko lehiakide Yolanda Barcinarengana zuzentzen ari da bere kritikak, ezeroso baitago norabide bakarreko estrategia horrekin, jokatzeko aukerak nabarmen gutxitzen dizkiolako, eta gobernu ultrakontserbatzaile eta agortuaren konpartsa hutsa izatera murrizten duelako.



Nafarroa Bai

Bestetik, CDN UPNrekin zituen konpromisoetatik askatu da, eta horrek berezko jarduera aurrera eramateko aukera ematen dio, eta erakunde esanguratsuetan, esaterako Parlamentuaren Mahaian, gehiengo berriak osatzeko aukerari ateak zabaltzen dizkio. Duela egun gutxi, Mahaiak, CDNren ordezkariaren babesarekin, Amnesty Internationalaren agerraldia onartu zuen, pertsona presoek ezartzen zaien inkomunikazioari buruzko txostena azal zezan. Nafarroa Bairen eskaera hori bera, atzera bota zuen lehenago UPNk, PSNk eta CDNk osatzen zuten gehiengoak.

Aurrerantzean, seguru asko, UPN eta PSNren arteko itunaren beste sakoneko arrazoiak azaleratuko dira. Itun horrek Nafarroarako gobernu plural eta alternatiboa zapuztu zuen 2007an, Estatu arrazoa tarteko, eta pribilegio ekonomikoen eta prebenden banaketan gainean eraikitako '*interes sarean*' oinarritzen da.

'Interes sare' horren garrantziaren sintoma argia izan zen hainbat gizarte eragilek, UGTk esaterako, aldaketarako gobernuaren aurka agertu zuten jarrera. Edo, berriki, eta sindikatuen interes partikularrei mesede egitearren, Etxebizitza Legeari PSNk egin zizkion eskakizunak, nahiz eta oinarritzko ondasun horrekiko berdintasun printzipioa perbertitu. Are gehiago, eskaera horiek arazo larriak eragin zituzten orduko Etxebizitza kontseilaria Carlos Esparzarekin (CDN), baremo bakarra haustearren aurka agertu baitzen. Pentsa liteke bere alderdia gobernutik atera dela hain zuzen ere UPNk eta PSNk interesa dutelako kontseilaritza horrekin lotutako hainbat proiektu berreskuratzeko, esaterako Gendulain, eta ez eremu mistoa zabaltzeko aukera txikiaren aurrean Miguel Sanzek antzeztu zuen tolerantziarik ezagatik.

Nolanahi ere, Nafarroa Baik adi egon beharko luke erabilera amarruzko eta ustelen aurrean, eta salatu beharko ditu, eraiki nahi dugun eta ordezkatzeko dugun Nafarroa horren defendatzaile eta bultzatzaile gisa agertzeko: gutxi batzuren interes partikularretatik eta iluntasunetik urrun dagoen Nafarroa zabal, aurrerakoi, solidario, plural, abertzale eta ezkertiarra, inola ere ez UPNk eta PSNk sendotu nahi duten erregimenaren jarrera alderdikoi eta balore kontserbatzaileekiko etsia.

Nafarroa Bai sendotu eta hazteko aukera daukagu beraz. PSN UPNren aurrean makurtu da, eta Nafarroako eskuina aliatu bakar eta baztertzaitzat hartuta, koalizio euskaltzale, aurrerakoi, abertzale eta ezkertiarri aukera paregabea zabaltzen zaio Nafarroako Erkidegoan, benetako aldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta demokratikoa lortzeko bidean erreferente eta berme gisa hazteko.

TESTUINGURU HONETAN, NAFARROA BAIK DATOZEN UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEETAN NAFARROAKO LEHEN INDAR POLITIKOA IZATEKO HELBURUA BEHAR LUKE.



Nafarroa Bai

1. Zein da Eusko Alkartasunak NaBai sendotzeko egin dezakeen ekarpenik onena?

AURREKARIAK

2008ko maiatzean, Eusko Alkartasunak barne eztabaida martxan jarri zuen, Nafarroa Bairen jardueraren baitako akatsak berrikusi eta akats horiek konpontzeari begira, politika eta antolaketa arloari zegozkion neurriak proposatzeko; era berean, Nafarroak gaur egun dituen erronkei begira Koalizioa prestatzeko.

Hasieran, prozesu horrek lan handia eman zuen. Nafarroako politikan eta erakundeetan EAK duen esperientzia luzetik abiatuta, Nafarroako zonalde guztietan izan ginen, hautetsien, alderdiaren barne antolaketako ordezkarien, eta militanteen iritzia, usteak eta iradokizunak jasotzeko.

Eztabaida, dokumentu baten inguruan izan zen. Bertan, oso diagnostiko zehatza egin zen, azpimarratzeko zein eta non zeuden, gure ustez, Nafarroa Baik aurrera egiteko eta sendotzeko zituen arlo ezberdinak. Dokumentu ireki hori Koalizioa osatzen duten alderdiei eta Nafarroa Bairekin lan egiten duten independenteei eman genien, haien ekarpenak jasotzeko.

Orduan, orain bezala, sinetsita geunden NaBai Nafarroan inoiz egon den aldaketa politiko liluragarrientzako tresna dela, inkestek berresten duten bezala. Eta, Koalizioa eratu eta bultzatu zuen alderdi gisa, uste genuen gure ardura zela, eta badela, hura sendotzea, foru eta udal erakundeen bidez aldaketarako motorra berandu baino lehen bilaka dadin.

Batzorde Berezitu hartan ateratako ondorio batzuk erabat balekoak dira gaur egun ere. Baina ezagutzera eman baino lehenago, gaur egun Nafarroa Bai mugitzen den testuingurua, eta gure ustez une honetan aurreikus daitezkeen aitzinatzeko aukerak azalduko ditugu.

Gure aldetik, eta ekainaren 20an eta 21ean egindako azken Kongresuaren ondorioz, Nafarroa Bai sendotzeko EAK egiten duen apustua zalantzarik gabea da. Eta NaBairen bide politikoa aniztasunean oinarritutako batasuna dela gero eta onartuagoa den neurrian, gero eta ziurtasun handiagoa dago aukera hau Nafarroan sozialki beharrezkoa eta politikoki komenigarria dela.

Eta horixe frogatzen digu borrokatzen garen zahar-kutsuko botere faktikoen etengabeko ahaleginak, gu izan gaitezten kritika gogorrenen helmuga eta haien estrategia guztien benetako helburua.



Nafarroa Bai

EGUNGO EGOERA

Koalizioa osatzen duten Aralar, Eusko Alkartasuna, EAJ-PNV, Batzarre eta pertsona independenteek adostutako Antolaketa Oinarriek NaBairen jardun instituzional bateratua sendotu dute Nafarroako erakundeetan eta lurraldearen eremu gehienetan.

Gaur egun, apustu hori berrindartu beharra dago, Koalizioaren barne antolaketa eta jarduna hobetzeko, hazteko ditugun aukerak aprobetxatzeko, eta Nafarroako gizartearen baitan Nafarroa Bai garatzeko oinarri sendoak finkatzeko, **eta aldaketa politikoari begira, datozen hauteskundeetarako programa politikoa eta hautagaitza egokienak lortzeko.**

Nafarroa Baik ez du iraungitze datarik. Proiektu bizia, aberatsa eta konplexua da. Une bakoitzeko erritmo ezberdinaren arabera garatuko da, baina bizirik jarraituko du dudarik gabe; Nafarroan dagoen behar politiko eta soziala argi eta garbi ezagutzen dugunok ezin dugu hori zalantzan jarri. Ezin dugu Nafarroa Bai axalkeriaz tratatu, erakundeetatik aldaketa egiteko aukera bakarra indar eta ahalegin batuketa horretan ikusten dutelako herritarrek.

Koalizioaren gaur egungo Politika eta Antolaketa Oinarriak dira Nafarroa Bairen jarduna zuzentzen dutenak. Oinarri horiek aldatu edo ordezkatu daitezke, baina, edozein arrazoi dela, 2011. urtera arte aldaketa esanguratsuak edukiko ez balituzte, ez lukete gaurkotasunik galduko. **Kontrakoa esatea instrumentu politiko garrantzitsu honi jasanezinezko presioa jartzea da, gizartearekin hartu dugun konpromisoa arriskuan jarritz.**

Dauden akordioek, orain arte, balio izan dute hainbat helburu oinarri-oinarrizkoak lortzeko. Esaterako Nafarroako abertzale aurrerakoiak Nafarroako Parlamentuan eta Iruñeko Udalean, besteak beste, bigarren alderdi gisa jartzeko. Baita jendearen irudimenean etengabe hazten ari den proiektu gisa aurkezteko ere, gizartean aldaketa politiko bultzatzeko ardura eta gaitasun handiarekin.

Nafarroa Bai, sortu zenetik, jarraitzeko sortutako proiektua da. Horrela esan dugu behin eta berriro, barnean zein kanpoan. Beraz, lege onez pentsatu beharko genuke denok dugula konpromiso bera proiektu honekin.

Litekeena da Koalizioa osatzen dugun kide bakoitzak, gure berezitasunengatik, gure ibilbide eta kultura politikoengatik, analisi ezberdinak egitea Nafarroa Bai indartzeko dauden formula egokien inguruan. Baina EAk ezin du onartu analisisian egon daitezkeen desberdintasunengatik, edo soluzioari buruzko ikuspegi ezberdinengatik, inork estrategia nabarmen ezkorra planteatu dezakeenik, horrek Nafarroa Bairen irudi publikoa eta ibilbide politikoa arriskuan jar dezakeelako. Ez dugu ezkortasun horretarako arrazoirik ikusten, alderantziz, Koalizioa sendotzeko aukera antzematen dugu. Beraz, ez dugu ulertzen eta ez dugu onartuko gizartearen gehiengo zabalak, eta baita gure lehen arerio politikoak ere, oso garrantzitsutzat jotzen duen proiektu hau zalantzan jartzea edo higatu nahi izatea.

Nafarroa Bai sendotzea eta aitzinatzeak etengabeko autokritika eraikitzailea eskatzen dio kide bakoitzari; baina baita proposamen positiboak egiteko konpromisoa ere, gainontzekoekin negoziagarriak beti ere. Erabaki sendo horrekin, hemen dago gurea.

2. EAren proposamenaren oinarriak NaBai indartzeko

2.1. HELBURUAK

-Nafarroa Bairen proiektu politikoa bultzatu eta indartzea.

-NaBairen hauteskunde proposamena eta programa osatzeko prozesua erabakimenez abiatzea, Nafarroan aldaketa politikoa bilatzeko.

-Udaletan Nafarroa Bairen presentzia eta eragina handitzea.

2. OINARRI IRADOKITZAILEAK

EAren iritziz, Nafarroa Bairen sendotzea gidatu beharko luketen oinarri iradokitzaileak ondoko hauek dira:

-**NaBairen pluraltasuna** haren ondarerik baliotsuena da, eta dena batzen duen eranskina; Koalizioaren hauteskunde emaitzekin lotuta dago gainera.

-**Gizarteari zabalik** egotea, ohiko alderdien egitura eta funtzionamendu zurruntasunaren aurrean. Ezaugarri hori da NaBairen politika egiteko modu berria.

2.3. BEHARREZKO BALDINTZAK

-**Kontsentsu bilaketa.**

-**Jarrera ulerbera** gure zein besteen berezitasunekiko, eta egin daitezkeen akatsekiko.

-**NaBairen proiektuaren lehentasuna** gainontzeko alderdien interes partikularren aurrean.

2.4. ZEHARKAKO INDARRAREN IDEIA: Elkarbizitza demokratikoa Nafarroan.

Nafarroa Bai, bere baitako pluraltasuna dela eta, elkarbizitza anitzaren eredua eta eskaintza da. Bere baitan nortasunaren inguruan eta Nafarroarako marko juridiko-politiko egokiaren inguruan sentsibilitate politiko ezberdinak batu dituzenez, Nafarroa Bai zeresan asko dauka gurea bezalako gizarte plural eta konplexuaren elkarbizitzaren antolaketan eta egituratzean.

Elkarbizitzarako Nafarroa Bai egiten duen proposamenak oinarritzko bi aurrebaldintza ditu.

-Pertsonetikiko begirunea

-Zilegizkoa den ezadostasunetik abiatuta, ideiekiko begirunea.

Aurrebaldintza horiek berekin dakarte bizitzarekiko eta pertsona guztien segurtasunarekiko errespetua, salbuespenik gabe. Eta, beraz, proiektu politiko bat defenditu, sustengatu edo ezartzeko argudioarekin sortzen den edozein bortizkeria politikoren gaitzespena eta ukoa ere badakarte.



Nafarroa Bai

Eta berez dakarte demokraziari dagozkion eskubideen eta oinarrizko askatasunen defentsa itsua. Eta, horregatik, botere publikoek eskubide edo askatasun horiek murrizten, gutxitzen, urratzen edo garantiaz husten badituzte, salatu egin behar dira.

Nafarroa Baik, instituzioekiko bokazioagatik eta bere ibilbide politikoagatik, eztabaida garrantzitsu honen ardatza izateko aukera eta gaitasuna bildu du Nafarroan. Egin gabe dagoen eztabaida horrek ertz asko dauzka, eta ausardia, prestutasuna, duintasuna, begirunea eta askatasuna behar du, dosi egoki eta baliokideetan.

Elkarbizitza, Nafarroan, bi estrategiak baldintzatu dute orain arte; biak kontrajarriak dira eta, era berean, elkar elikatzen dute.

-ETAren estrategia bortitz eta arbuigarria.

-Nafarroa ofizialari aurre egiten edo kontra egiten dion guztiaren bazterketa sistematikoa. Bereziki, Nafarroako euskal nortasunaren eta hura irudikatzen duen guztiaren ukazioa.

Erkidego honen elkarbizitza politiko eta soziala bi fenomeno horiek baldintzatzen dute; biak kontrakoaren existentziagatik justifikatzen dira behin eta berriro, baina egiazki alderdikeria oso negatibo baten iraupena erakusten dute, eta, beste soluzioak gora behera, demokratikoki zuzendu eta gaingitu behar ditugu, bere buruarekin adiskidetuta eta integratua bizi den benetako gizarte lortuko badugu.

Azken garai honetan ikusi dugun Falange y Tradicion bezalako taldeen bortizkeriaren berpizteak arazo honen konplexutasuna, adarrak eta sakontasuna erakusten dizkigu. Arazoaren sorburuan Espainiako Estatuaren historia korapilatsua, delako 'euskal gatazka politikoa', eta azken finean gaur egungo gizartean dirauen kultura demokratikorik eza daude,

Nafarroako bigarren alderdi politiko gisa, zeregin aktiboa hartu behar dugu errealitate horren aurrean. **Ez dugu onartzerik gorrotoa eta errezeloa bezalako elementu arriskutsu eta kaltegarriak, bizitza politikoaren eta eztabaida publikoaren ardatza bihurtzerik, arduragabekeriagatik.** Aniztasun kultural, sozial, politiko eta ideologikoaren oparotasun beteaz osatutako elkarbizitza demokratikoaren ardatza oso argi marraztu behar dugu, askatasun eta eskubide murrizketak babestu nahi dituzten artifiziozko justifikazioak onartu gabe.

Nafarroa Baik 'zentralitate' hori gauzatu dezake, eta gauzatu behar luke. Horrek esan nahi du elkarbizitza demokratikorako gutxieneko zenbaiten defentsan zeregin protagonista onartu behar duela, eta lehenetsi behar dituela duintasuna, pluraltasunaren errespetua, demokraziaren sakontzea eta erakundearen funtzionamendu ona hobesten duten formulak.

Eta ihes egin behar dio oinazea maltzurki eta alderdikeriaz erabili, eta bortizkeria bezalako fenomeno larriaren existentziari errentagarritasuna atera nahi dion estrategia orori. Ildo honetan, alderdi guztien ardura eta konpromiso demokratikoa aintzat hartuta, dei egiten dugu errealitate horrek sortzen duen oinaze ikaragarriaren erabilera alderdikoi eta obszenoa saihesteko. Erabilera hori bortizkeriaren eta errepresioaren biktima guzti-guztien duintasunaren aurkakoa baita, eta baita demokraziaren gutxieneko edozein oinarriren aurkakoa ere.

Nafarroa Baik zeregin zentrala hartu dezake, eta hartu beharko luke, Foru Elkargoak hainbeste behar duen elkarbizitza eredu hori lortzeko helburu kolektiboaren alde.



Nafarroa Bai

Integrazio soziala eta ideia guztien begirune demokratikoa bultzatzen duten formulak proposatuz, pentsamendu bakarra, bazterketa instituzional eta politikoa edo, are, aurkariaren desagertze fisikoa oinarritzat duten estrategien aurrean. Eta tinko gaitzetsiz oinarri hauen urraketa ekar lezakeen edozein bide.

Nafarroa Bai beti agertuko da ideologia, programa, eta gizartearen interes orokorraren gainean sortutako estrategien aurka, baita desberdin pentsatzen duena sistematikoki baztertzera bideratutako itunen aldeko estrategien aurka ere.

Nafarroa Baik nafar gizartea elkar baretu eta adiskidetzeko zeregin aktiboa hartu beharko du, Nafarroan dagoen gehiengo aurrerakoia zapuztu, baztertu eta desaktibatuzera daramaten dinamikak hautsiz.

Nafarroako gehiengo soziala aurrerakoia da, bistakoa da, baina gobernua zein gaur egun nagusi diren politikak ez datoz errealitate horrekin bat. Nafarroa plurala da, baina elkarbizitzari dagokionez azken hamarkadetan nagusi diren politikak eta neurriak ez dira gure elkargoan dagoen aberastasun politikoa, soziala eta kultura errespetatzeko, integratzeko eta barneratzeke egin; alderantziz: baztertu, kanporatu eta, gero eta gehiago, zatarki kriminalizatzeko pentsatuak izan dira.

Nafarroa Baik bere gain hartzen du pluraltasunean elkarbizitza irmo defenditzeko ardura, eta eskubideak eta askatasunak defenditzeko obligazio politiko eta morala. Horrek esan nahi du 'borroka antiterroristapean' babesten diren estrategien aurka ere agertuko garela, eta salatuko ditugula, aniztasunean oinarritutako elkarbizitza zikiratzen dutelako, eta, are, Zuzenbide Estatuan existitu beharko luketen bermeak urratzen dituztelako. Nafarroa Baik bi irizpideak erabiltzen jakin beharko luke: etika eta Euskal Herriaren baketzea eta normalizazio politikoarekiko konpromisoa.

Askotan, giro gatazkatsu honen intereseko erabilera egiten da. Eta iritzi ezberdina izateko eskubidea moztu, eta, ikuspegi alternatiboetatik, 'politikoki zuzena' denaren aurka pentsatzera, iritzia ematera eta ekitera ausartzen diren talde, norbanako edo mugimenduak kriminalizatzen dira.

Une honetan, eta Estrasburgoko Auzitegiaren epaiaren ondoren, Alderdien Legea bezalako neurriek gure ustez eragiten duten askatasun murrizketa areagotzen ari da, terrorismo delitutzat hartzen denaren interpretazioa gero eta zabalagoaren bidez. Egoera honek, segurtasun juridikorik eza handia sortzeaz gain, 'sorgin ehiza' giroa bultzatzen du, eta kritika zikiratu eta gizarte mobilizazioa eta ekimena indargabetzen ditu.

Are gehiago. Lurralde honen berezko nortasun sentimenduaren adierazpen publikoa zigortzen duen **Nafarroako Ikurren Legeak** berak, edo bata bestearen atzetik Euskal Abertzaletasun demokratikoaren kontrako Estatu Itun bilakatzen diren **Terrorismoaren aurkako Itunen manipulazioak**, erakusten dute sentitzeko modu bakarra eta pentsatzeko modu baztertzaille eta norabide bakarrekoa ezartzeko borondate gaiztoa, eta Nafarroa Baik horren aurka agertu behar du, alternatibak eskainiz.

Nafarroa Bairentzat helburu demokratiko guztiak zilegizkoak dira, era baketsuan eta bide politikoen bidez defenditzen baldin badira. Beti ere egitismo horrek ez baldin badauka, proiektu bakarra ezartzea helburu, askatasunak garbitzeko asmo totalitarioa.



Nafarroa Bai

Herri honetan, bideak eta helburuak maltzurki nahastu dira askotan, eta helburuak defenditzeko edozein ekintza babestu izan da, hala terrorismoa (ETArena, baina baita Estatuarena ere), nola tortura, eskubide zibil eta politikoen ezabaketa, eta herrien eskubide demokratiko eta nazional zilegizkoen ukazioa. Etengabe, demokraziaren kontzeptu bera ixten ahalegintzen dira, proiektu bakarraren inguruan.

Nafarroa Bai eragile zabala, plurala eta eraginkorra da, eta alde horretatik **demokrazia** ez da bakarrik erakundeetan erabakiak hartzea. Askoz gehiago da. **Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gune herritar zabala eta hedagarria da**, eta pertsona guztien eskubideak babestu behar ditu, eta adierazpen eta pentsamendu emari librea baimendu eta bultzatu behar du, eta ideien arteko eztabaida publikoa sustatu eta garatu behar du, **eta, batez ere, behar diren bide politiko eta legalak bermatu behar ditu proiektu guztiek demokratikoki gauzatzeko baldintza eta aukera berdina izan dezaten**, baldin eta gizartearen gehiengoak horrela erabakitzen badu askatasunez.

Horrek esan nahi du Nafarroa Bairentzat gaur egungo sistema politikoak gabezi demokratiko oinarritzkoak dituela. Eta, ondorioz, gaur egungo oztopoak astintzea (esaterako Foru Hobetzearen erreforma) eginbehar ezinbestekoa da Nafarroako pluraltasun sozial eta politikoa garantiaz egituratzeko.

Beraz, Nafarroako elkarbizitzarako Nafarroa Bai daukan zeregin ezinbestekoari buruzko zeharkako funtzio horiek, eta Koalizioaren funtzionamendu onerako hasieran adierazitako oinarri iradokitzailleak eta behar diren baldintzak kontuan hartuta, Eusko Alkartasunak uste du, gaur egun, bi aukera daudela Nafarroa Bai egungo erronkei egokitzeko:

- a) **Egungo Politika eta Antolaketa Oinarriak eguneratu**
- b) **NaBai osatzen dugun alde guztien arteko itun berria osatu**

3. Egun dauden politika eta antolaketa oinarriak eguneratu

Lehen aukeraren barruan, egungo Politika eta Antolaketa Oinarriek garapenerako tarte zabala eskaintzen dute, egun dauden akordioen oinarriak aldatu gabe. Akordio hauek formula ugari onartzen dituzte egitura eta funtzionamendu berria egituratzeko, koalizioaren barne funtzionamendua eraginkortasunez, arintasunez eta funtzioen bereizketaren arabera antolatuzeko, eta Nafarroa Bairen oinarri sozialari parte hartzeko bideak irekitzeko.

Testuinguru honetan, EAK planteatzen du, alde batetik, 2007ko maiatzean hiritarrei aurkeztu genien hauteskunde programarako koalizioaren lau alderdiek eta independenteek **esparru instituzional eta politikorako lortu genuen Akordioa Politika Oinarriei gehitzea**, ondorengo hobekuntzekin:

3.1 Politika eta Instituzio Oinarriak

NAFARROA BAI, berez, Nafarroako gizarte osora zabaldu nahi dugun kultura politiko berriaren adierazpena da. Kultura berri hau nafar gizartearen pluraltasunaren onarpenean eta gure herrian elkarbizitza bultzatzeko konpromisoan oinarritzen da, eta hori posible egiteko behar den zentraltasun ariketa gure egiten dugu. Alde horretatik, Nafarroa Baik bere gain hartzen du pertsona guztien giza eskubide guztien defentsa aktiboa, bizitzeko eskubidetik hasita eta honekin batera beste guztiak, eta eskubide horien edozein urraketaren salaketa.

Nafarroan aldaketa politikoa bultzatu nahi duten eragile batzuk alderdi eta sentsibilitate dinamikoen eta aurrerakoienekin antolatuz, gizabidezko nazionalismoa eta hiritartasunaren kontzeptuaren bidez berezitasunak bide demokratikoan sakontzeko baliatu dituzten beste **gizarte kulturalki pluralen esperientziak bere egin ditu Nafarroa Baik**. Nortasun politiko hori islatzen duten oinarriak zehaztu eta azaltzea, eta berau antolatzea, ezinbestekoa da ekintza politikoa eraginkorra izan dadin, eta egitura hori nafar gizartean txerta dezagun.

3.1.1 Eremu instituzionala

Nafarroa Bairentzat, ordena politiko zilegi bakarria herritarren borondate libre eta demokratikoa eta haien arteko hitzarmen eta negoziazioak oinarri dituen da. Inposizioa, xantaia eta bortizkeria mota oro baztertzeko du, zorrotz baztertu ere.

Nafarroa Baik Nafarroako herritarrei onartzen die egituratzeko baldintzarik gabeko ahalmena, eta egitura politikoa libreki ezartzeko gaitasuna. Gisa berean, erakunde komunak sortzearen, Espainiako Estatuarekin berdintasunean negoziatzeko eskubidea onartzen die. Planteamendu hauek aurrera eramango dira Nafarroan aldeko gehiengo nahikoa dagoenean.

Nafarroa Bairentzat, Nafarroako herritarrak dira subjektu politiko bakarria. Nafarroa ezin da herritarrei ezarritako izaera esentzialisteko objektu politikoa izan, libreki adierazitako borondateren ondorioa baizik. Horregatik, demokratikoki adierazitako inongo proposamen politikori ezin zaio eztabaida soziala edo herritarren borondatearen erabaki librea ostu, eta ezin dira behialako edo gaur egungo egitura politiko instituzionaletan gairazirik mugak ezarri. Oinarri hauetan finkatuta, Nafarroa Baik herritarren inplikazioa defenditzen du jardura politikoan; beraz, herritarren parte hartzea zaindu eta sustatzeko konpromisoa dauka.

Nafarroa Baik LORAFNA edo Foru Hobetzearen erreforma defenditzen du. Estatuarekin lortu beharreko itun politiko berriak gutxienez hiru baldintza hauek bete beharko ditu: Nafarroa herritarrek erabakitzen duten autogobernu mailaz hornitzea; alderdi guztien arteko adostasuna, salbuespenik gabe; eta Estatuarekin burututako negoziazioaren emaitza herri erreferendumean bozkatzea.

Egungo Espainiako Konstituzioaren mugak eta zurruntasuna kontuan hartuta, Nafarroa Baik Konstituzioan eta Lorafnan onartuta dagoen Eskubide Historikoen bidea erabiltzea proposatzen du, Estatuarekin itun politiko berria posible egiteko.

Estatuarekiko itun politiko berriak eduki hauek izan behar ditu:

- Nafar guztiek kontsultatuak izateko duten eskubidea haien etorkizunaz erabakitzeke, erreferendum bidezko kontsulta demokratikoak egitea arautu eta kudeatzeko ahalmen osoz.
- Konstituzioaren 102. artikuluan aurreikusitako transferentziak edo delegazioak nafar eskumen-esparruaren alde erabiltzea.
- Botere judizial berekia eratzea, instantzia judizial guztiak hartan agortzeko, Auzitegi Gorenaren kasazio errekurtsua tartekatzeke aukera bazterrean utzi gabe, doktrina bateratzeko.
- Erabateko autonomia, autogobernu politikoari berariaz dagozkion erakundeak antolatzeko, eta Estatuak oinarritzko legediaren bitartez inposatutako mugak ezabatzea.
- Kulturari, hizkuntzari, hezkuntzari eta ikurren nahiz sinboloen alderdian erabateko eskumena izatea.
- Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizial gisa aitortzea.
- Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa autonomia, eta erabateko eskumenak lan harremanetan, aurreikuspenetan, ongizatean eta Gizarte Segurantzari.
- Estatuarekin aldebiko berme sistema bat ezartzea; era berean, funtsezko erakunde erabakitzaileetan parte hartzeke bideak ezartzea; esate baterako, Auzitegi Konstituzionalean.
- Nafarroako herritarrek eta Eusko Autonomia Erkidegoko zein Iparraldeko herritarrek beren borondatez erabakitzen dituzten gizarte eta erakunde mailako loturak ezartzeko eskubidea aitortzea, eta Nafarroa Beherearekiko erakundeen arteko harremanak sakontzea, Nafarroa Behereko eta Nafarroa Garaiko herritarrak batzen dituzten historia, gizarte eta kultur lokarriak berreskuratzeko eta areagotzeko.
- Europar ahots berekia izatea, bai eta nazioarteko harremanetan ere; era berean, Europako erakundeetan zuzenean egotean Nafarroari berarazi dagozkion eskumenen alde eta nafar identitatearen defentsa egiteke.
- Giza eskubide guztiak egiazki onartzea eta defenditzeke, Konstituzio politikorik aurreratuenek biltzen dituzten gizarte eta kultur eskubideak barne.
- Gizarte politika baliagarriak landu eta gauzatzeko lanabesak, bai eta zerbitzu publikoak emateko ere.
- Etorkinen eskubideen inguruko adierazpena; Hirugarren Munduarekiko elkartasunaren erakundetze juridikoa.



Nafarroa Bai

Nafarroa Baik proposatzen duen itun-ildo politikoa Eskubide Historikoen eta forutasunaren interpretazio erradikal demokratikoan oinarritua dago, eta nafar herritarrek erabakitzeke duten baldintzarik gabeko ahalmenari lotua dago. Kultura historikoan sustraituriko interpretazioa da eta, aldi berean, egungo planteamendu demokratikoekin bat datorrena. Ildo horren berezitasuna eta bereizitasuna honetan datza; hots, Nafarroako herria erabateko subjektu politikoa da; eta horren bidez, badu berez ahalmen eratzailerik baldintzatu gabea, eta era berean, badu bere erregimen politikoa askatasunez ezartzeko eskubidea. Beraz, ildo harentzat Nafarroa-Espainia egituraketak izan behar du subjektu berdinen arteko itunaren emaitza, zein bere Konstituziotik abiatzen dena, eta batasun politikoaren irismena adieraziko luketen erakunde bateratu jakin batzuk ezartzera iristen dira.

Nafarroa Baik eskubide historikoak (hots, Nafarroako herritarrek duten baldintzarik gabeko erabakimena) erabiltzea proposatzen du, Nafarroako autogobernua handitzeko bermea direlako; hau da, ez dago oinarritua halako poz historizista zaharkituan, ezta tradizioa tradizio hutsez defenditu nahi izateagatik. **Gure apustuaren giltzarria da erabat sinetsita gaudela egungo kultura politiko espainiarra iragazgaitza dela federalismo nazional eta asimetrikoarentzat ere.**

Federalismo molde hori, guretzat, nazio aunitzez osaturiko Estatuari legokieke; esaterako, Espainiar Estatuari. Honatx haren ezugarriak: Estatu hura osatzen duten nazio bakoitzak bere botere eratzailerik izatea eta egiazko itun federala ezartzeko ahalmena izatea, entitate nazional bakoitzarentzat autogobernu-maila handia gordeko duena, bai eta Estatu federalean parte hartzeko molde jakin batzuk ere; esaterako, gobernu partekatua, zuzenbide berekia babesteko bideak ezartzea eta Auzitegi Konstituzionalean parte hartzea.

Gizabidezko nazionalismoa Nafarroa Baiko kultura politiko zabalenetako bat denez, berekin dakar Nafarroako identitatearen inguruan dauden ideia eta leialtasun guztiak errespetatzea, bai eta guztien eskubide-berdintasunaren printzipioa ere, hemen jaiotakoak izan ala kanpotik etorritakoak izan. Gizabidezko nazionalismoaren ikuspegitik, Nafarroa Baik ahalegin berezia egin nahi du Nafarroako inguru guztietako herritarrak barne hartzeko gauza izanen den bizikidetzaren proiektua landu eta gauzatzeko, alde batera utzita herritarrek zer identitatearekin bat egiten duten. **Nafar herritarren unibertsaltasuna defenditzen dugu eta identitatea kartan ere bai.** Horrenbestez, nafar guztiak lehen mailako herritarrak gara, eta bakoitzak hautatuko du beretzat nahi duen proiektu identitarioa.

Guztientzako eskubide-berdintasunaren gaineko planteamenduarekin bat, eta hizkuntza eskubideei dagokienez, aukera-berdintasunari jarraikiz, euskara ofizialtzat aitortu behar da Nafarroa osoan; era berean, ondotik, hizkuntza legedia garatu behar da, herritarren nahiekin bat eta egoera soziolinguistikorekin bat. Bi hizkuntzen arteko bizikidetzaren baketsua eta emankorrak Nafarroako kultur bereizgarria izan behar du.



Nafarroa Bai

Nafarroa Bairen iritziz, immigraziotik sortutako taldeak eta nazionalitateak Nafarroako identitate aberats eta anitzaren osagaietako bat dira. Horrenbestez, behar adina bide gaitzeko konpromisoa hartzen du aipatu taldeek beren kultur identitatea gorde eta gara dezaten, eta era berean, gure kultur identitatearen osagai eta adierazpen guztien jasotzaile eta parte-hartzaile izan daitezten.

Nafarroa Baik konpromisoa hartzen du lurralde-politika eraginkor eta adostuak gauzatzeko, Nafarroako eskualde guztiek arlo guztietan **era orekatuan garatzeko aukera** izan dezaten. Horrenbestez, herritar guztien eskubideak bermatuko dira, non bizi diren gorabehera.

Nafarroa Baik dio Euskal Herria edo Euskadi izan, badela, eta era berean, arlo guztietan badirela lokarri bereziak (historikoak, kulturalak, ekonomikoak eta beste) Eusko Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko herritarrekin; Nafarroako Beherekoekin, bereziki. Hori dela eta, nafar erakundeen osotasunetik, eta Nafarroako herritarren garapena eta ongizatea gogoan, Nafarroa Baik, epe erdira edo epe luzera, EAErekin konfederazioa egitea proposatzen du, herritar gehienek sostengua izanez gero. Bitartean, Nafarroa Baik Nafarroa eta Eusko Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzara iraukorrerako lanabesak sortzea bultzatuko du; esate baterako, Nafarroako Legebiltzarrak 1996an gehiengoz onetsitako huraxe bezalakoa.

Nafarroa Baik erabat dago Europa politiko eta sozialaren eraikuntzarekin engaiatua. Horri loturik, autodeterminazio-eskubidea aitortuko duen Europa demokratikoaren alde egiten du, Europako herri guztien parte-hartze eraginkorrean oinarritutakoa. Era berean, Europa sozialaren alde egiten du, eta horrekin bat, politika ekonomikoak herritar guztien ongizatearen zerbitzuan jartzea.

Nafarroak Europar erakundeetan parte hartzearen aldekoa da Nafarroa Bai (hau da, Batasuneko Ministroen Kontseiluan eta Batzordeetan); ildo horri loturik, Nafarroa Baik proposatzen du Nafarroak, besteekin batera, erabakiak hartzeko ahalmena izatea eta zuzenean egotea haren intereseko eta eskumeneko gaiak aztertzen dituzten erakundeetan; horrez gain, ordezkari iraunkorra ere izan beharko luke Bruselan, gure interesen alde buru-belarri aritzeko. Nafarroa Baik, halaber, aldarrikatu egiten du Nafarroa, Akitania eta EAE arteko Lankidetzarako Protokoloa berreskuratzea, europar esparruan ditugun aukerak hobetzeko; izan ere, ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistematan izandako aldaketak ikusita, eta nazioz gaindiko harremanak areagotu direla kontuan hartuta, guztiz beharrezkoa da mugakide ditugun erregioekin elkarren arteko politikak egitea. Nafarroa Baik, gainera, konpromisoa hartzen du Europako beste erregio-elkartegintza molde batzuk garatzeko, Nafarroako interesgarriak badira; esaterako, Atlantikoko Europa Hegoaldeko Erregioen Konferentzia eta Pirinioetako Lan Komunitatea, 1983an sortutakoa. Nafarroa Bairentzat, azkenik, ahalik eta probetxurik handiena atera behar zaio Baionako Itunari, 1995ean Espainiako eta Frantziako Estatuak sinatutakoari; haren helburua baita frantses eta espainiar lurralde-entitateen arteko mugaz gaindiko lankidetzara erraztu eta sustatzea; era berean, Itunak eskaintzen dituen aukeretan herritarrak inplikatzeko saiatu beharra dago.

3.1.2.Esparru politikoa

Progresismo irekia eta justizia sozialan, baliabide publikoen kudeaketa gardenean eta zuzenean eta berdintasunean oinarritutako irizpideekin gizartea transformatzearen aldeko jarrerek Nafarroa Bairen identitate ikur aipagarrienetako bat osatzen dute. Identitate ikur hau azkeneko bost urtetan erakundeetan egindako lanak indartu egin du, eta Nafarroa Bairen sendotasun bat da, beraz, bateratze borondatearekin, sakondu beharrezko ikuspegi ideologikoa da.

Gure iritziz, printzipio eta planteamendu politikoak eguneratu egin beharko lirateke, **beti ere 2007ko hauteskundeetan aurkeztutako programan bildutakoetan oinarrituta**; horrenbestez, printzipio eta planteamendu horiek izan beharko lukete heldu den hauteskundeei begira nafar gizartearekin hartu beharreko konpromisoa.

Planteamendu horiek ere ekonomia, gizarte eta sektoreetako politiken garapena bilduko lukete, eta bost atal handitan sailka genitzake. Batzordeak eratu beharko lirateke atal haietako bakoitza aztertu, garatu eta taxutzeko, eta Batzordeek, aldi berean, 2011-2015 hauteskundeetarako eta urteetarako hauteskunde Programa lantzeaz arduratuko lirateke.

Bost atal hauek lirateke:

A. Bizikidetzaren instituzionala eta soziala

Oinarritutako litzateke nafar gizartea bere Erakundeetan eta haien bidez ordezkaturik sentitzeko, Nafarroa Baik proposatzen dituen baldintzen arautze zehatzean, betiere Nafarroarako defenditzen den proiektu politikoa edozein izanik ere, bai Erkidego eskusibo eta desberdin gisa, bai Euskal Herriko gainerako herrialdeekin bat eginda, eta aukera hori ahalbidetzen duten baldintzak jasota.

Aspektu hauek guztiak garatuko lituzke: herritarren eskubideak eta betebeharrak, Foru Hobetzea erreformatzeko proposamenak, Europar eta Estatuko Erakundeekiko harremanak arautzea, Administrazioa eta haren Erakundeak modernizatzea eta berregituratzea, Organismo Autonomoak, Toki Entitateak eta enpresa publikoak, hizkuntza politikako egitura eta, hala bada, Nafarroan Erakunde berriak garatzeko proposamenak.

B. Ekonomia

Izaera ekonomikoko aspektu eta gai guztiak garatuko lituzke; hauek, bereziki:

1. Krisi ekonomikoa eta harri aurre egiteko eta hura arintzeko neurriak
2. Fiskalitatea eta ingurumen-fiskalitatea
3. Sektoreak
 - ❖ Industria
 - ❖ Teknologia
 - ❖ Turismoa
 - ❖ Landa ingurunea, nekazaritza eta abeltzaintza garatzea

C. Iraunkortasuna

- ❖ Nafarroako Lurralde Oreka
- ❖ Etxebizitza eta Lurralde Antolamendua
- ❖ Ingurumena
- ❖ Energia eta klima-aldaketa
- ❖ Ura
- ❖ Hiri Hondakin Solidoak
- ❖ Biodibertsitatea
- ❖ Ingurumen Hezkuntza
- ❖ Informazio eta Parte-hartze Publikoak
- ❖ Mugikortasuna

D. Gizartea

- ❖ Osasuna eta Osasun Arreta
- ❖ Hezkuntza
- ❖ Gizarte Zerbitzuak
- ❖ Enplegu neurriak
- ❖ Hezkuntza neurriak
- ❖ Osasun neurriak
- ❖ Gizarte laguntasunerako neurriak
- ❖ Gizarte ardurakidetzarako neurriak
- ❖ Adinekoak
- ❖ Haurrak eta nerabeak
- ❖ Etorriak
- ❖ Garapenaren aldeko lankidetzak
- ❖ Emakumea eta aukera berdintasuna



Nafarroa Bai

E. Kultura

- ❖ Hizkuntzak
- ❖ Kultura

3.2.) Nafarroa Bai: definizioa eta antolaketa-egitura

NAFARROA BAI **Alderdi Koalizio Egonkorra** da, Aralar, Eusko Alkartasuna, EAJ-PNV eta Batzarre alderdiez osatuta dago, eta partaide dira koalizioaren helburu politikoekin eta ideologikoekin bat datozen pertsona independenteak.

